

Gazte literatura

Odolaren sua
Irene Némirowsky

Itzultzailea: Jose Antonio Sarasola Arregi.
Alberdania, 2012

Sugar bizi-ezkutuak

NÉMIROVSKYREN lan gehienak bezala, paper artean galduta agertu zen *Odolaren sua*. Dirudienez, 1942an, idazlea atxilotua izateko zorian zegoela bere argitaratzaileari “landa giroko tragedia” hau eman zion. Paper artean eleberri oso bat zegoela ohartuta ere, XXI. mendera arte literatur munduak ez zuen aurkikuntza garrantzitsu honen berri izango.

Kontatu nahi izan den istorioaren garapen prozesuari erreparatuta, eleberria hiru zatitan bana daiteke.

Lehen zatia deskriptiboa da, tonu erraz eta naturalista batean garatua. Narratzailea, lekua (Errota Berri), garaia (1930eko urteen hastapenean) eta pertsonaiak kokatzeaz arduratzen da. Lehen pertsonaren erabilerak irakurketa norabide desberdinetara bideratzen du: baliteke, narratzaileak berak ikusi eta gogoratzen duenaren lekuko zuzena bilakatu nahi izatea irakurlea, besterik gabe, gu eta istorioarekiko urruntasun maila txikitu nahian. Baina, zilegi izan daiteke ere, narratzailearen teknika honek istorioaren garapen prozesuan ustekabeko eragina izatea. Hauxe bera, amaiera arte argituko ez den misterioa izanen da. Edozein kasutan, narrazioaren erritmoa motela da. Landa munduari eta, hortaz, ziklo naturalei lotutako kontakizun lineala izango da lehen zati honetan aurkituko duguna.


Bigarren zatian, Jean Dorin ehortzi zuten martxoko “egun hotz eta euritsu hartan” kokatzen gaitu (52. or). Momentu horretatik aurrera hastapeneko linealtasuna desagertuko da, landa giroko Frantzia tradizionalaren barne hipokresia bidea zabaltzeko.

Pertsonaien arteko erlazioa konplikitzen hasiko da eta, orduan, ulertuz goaz zein den hainbeste deskripzio eta iraganeko oroitzapenen arteko nahasketaren funtzioa; garaiko panoramika bat eskaintzeaz gainera, “errautsen azpian ezkutaturik” (148. or) eta pertsonaiantzako mingarriak izango diren gaztaroko konfesioak azalaraztea, narratzailearenak barne.

Horrekin eusten diogu eleberriaren hirugarren zatiari. Hemen erabateko analepsia egiten da pertsonaien gaztarora; I. Mundu Gerrako pasadizoak, maitasun ezkututuak, senar-emazte bilakatu dituzten gogoz kontrako ezkontzak eta, nola ez, ustekabeko amaiera.

Foiletoi gisara eratua dirudienak eleberri modernoaren itxura hartzen du. *Odolaren sua* “gazteriak bizitzako erdi ilunpean egiten duen abenturazko bidaia hori da”. Bizitza guztia odol kolpeka eratzen da, eta behin heldutasun arora iritsita soilik “egin dezakezu hondamenen balantzea” (148. orr). ■

Saioa Ruiz Gonzalez



Seigarren iraungitzea
Richard Leakey,
Roger Lewin

Gaiak, 2013

Naturaren aniztasuna zaintzeko aldarria

PENTSAMENDU obra garrantzitsua ipini digu eskuarte Gaiak argitaldaria. Bizitzaren jarraibidea eta gizadiaren etorkizuna ditu gogoeta gai, eta estreinakoz plazaratu zenetik –dagoneko badira ia 20 urte–, zeresan franko eman du.

Egileen ustez suntsiketa orokor baten baitan gaude, gure planetan gertatutako seigarrena izango litzateke –bosgarrena orain dela 65 milioi urte gertatu zen, eta beste zenbait espeziekin batera, dinosauoak desagertu ziren–. Aurreko bost aldietan ez bezala, gizakia genuke iraungitze orokor honen errudun. Zenbait kalkuluren arabera, 30.000 espezie leudeke etorkizun ez oso urrun batean galtzeko zorian.

Seigarren iraungitze-aldi hau duela 100.000 urte hasi zela argudiatzen zaigu. Esan nahi baita, lehen gizakiak planeta osoa kolonizatzeari ekin ziotenean, eta bidean, bizi-mota ugari suntsitu zituztenean, gizaki-espezie batzuk tarteko. Geroztik, joerak okerrera egin du eta horrela jarraituz gero, *Homo sapiens*aren patua ere berbera izango da.

Gizakiok naturaren aniztasuna babesteko behar etikoa dugula ozen aldarrikatzea dator Richard Leakey eta Roger Lewin antropologoek *Seigarren Iraungitzea*. ■



G.U.G.